

URNIETA / Umeen artean irakurzaletasuna sustatzeko kanpaina martxan Urnietako liburutegian

URNIETA. DV.Urnietako Udal Liburutegiko arduradunak aditzera ematen digunez, herriko umeen artean irakurzaletasuna sustatzeko kanpaina bat martxan ipini nahi da azaroa eta abendua bitartean ospatuko dena. 3 eta 8 urte bitartean dituzten gazteei zuzentzen zaie bereziki kanpaina. Hainbat larunbata goizetan saio desberdin batzuk ospatuko dira Udal liburutegian, guztiak goizeko 11:30etan hasi eta ordubete inguruko iraupena izango dute.

Herrian dauden gazte kopuru handia kontutan izanda, saio desberdin horietara hurbildu daitezkeen umeen adinak mugatu egin dira. Hala nola, azaroak 4 larunbata honetan ipuin kontaketa saio bat izango dugu, 2002 eta 2003. urteetan jaiotako (3 eta 4 urte dituzten umeak) umeei zuzendua. Goizeko 11:30etan Izaskun Mujika ipuin kontalari urnietarrak udal liburutegian ipuin batzuk kontatuko dizkie bertaratzen diren mutiko eta neskatoei.

Azaroaren 18an, Izaskun Mujikak beste ipuin kontaketa bat eskainiko du, kasu honetan 2000 eta 2001. urtean jaiotako umei (5 eta 6 urte dituztenei) zuzendua.

Abenduaren 2an, ' Liburuzainaren bahiketa ' izeneko antzerki lana izango dute ikusgai liburutegian.

Saio berezi hau 3 eta 12 urte bitarteko gaztetxoei zuzentzen zaie. Azkenik abenduaren 16ean, Izaskun Mujikak beste ipuin kontaketa saio bat izango du baina oraingo honetan 3 eta 8 urte bitarteko ume guztiei zabalduko zaiena.

Kanpainaren helburua, herriko umeek udal liburutegia ezagutzea eta bertan eskaintzen zazkien zerbitzuen berri izatea da. Ume izanik udal liburutegiko bazkide egiteko aukera badute eta ondorioz mailegu zerbitzuari esker liburuak etxera eramateko aukera ere bai.

Gurasoek informazio hori eskuratzea eta erabilgarri bihurtzea lortu nahi da aktibitate honen bidez.